



TITA BARAHONARI ELKARRIZKETA

euskaraz

Tita Barahona *Espacio de Encuentro Comunista* antolakundeko militantea da eta *Canarias Semanal* komunikabideko erredaktorea. Hurrengo elkarrizketan, alde batetik, Covid-19k mundu mailan sortu duen egoeran emakume proletarioaren eta, oro har, langile klasearen egoerari buruzko azterketa egin digu. Alde batetik, osasun krisiak azkartu duen krisi kapitalistaren bizkortzea dela eta, langile klasearengan izango diren ondorioez hitz egin digu. Bestetik, gizarte osoaren interesen arabera gizartea planifikatzeko gai izango den proposamen politikoaz mintzatu da, hori izanik zapalkuntza guztiekin amaitzeko gaitasuna izango duena.

-Covid-19ak osasun krisi egoera sortu du, baina klase ikuspegi batetik ezin dugu alde batera utzi horren inguruan hartutako erabaki ekonomiko eta politikoen eragiten dituzten ondorioen azterketa. Zein da pandemia kudeatzeari dagokionez eta neurri laboral, sozial eta ekonomikoen berehalako ondorioei dagokienez egiten duzun analisia?

Estatuko erakundeen partetik aurrera eramandako pandemiaren kudeaketa, berantiarra izateaz gain, ez da eraginkorra izan aurreko asteetako kutsatzeen eta heriotzen gorakadari aurre hartzeko. Denbora-tarte labur baina gogor honetan zerbait argi geratu bada, hau da: pixkanaka osasun publikoa desegiteak, langile klasea, gehiengoaren (osasun publikoaren) mende egonda, horrelako osasun-krisi bati aurre egiteko ekipamendurik eta langilerik gabe geratu gara; aldiz, osasun pribatuak, esaterako, eskura jartzen ez dituen arnasgailuen kopuruak atxikitzen ditu, Estatuak ere ez ditu horretara behartzen.

Bestalde, Europan eta erdigune kapitalistako beste herrialde batzuetan azken hamarkadetan emandako desindustrializazioak, bitza asko salbatu zitzaizketen ekipamendu horiek, behar bezain azkar ekoizteko gaitasuna deuseztatu du. Maskarak, eskularruak eta arnasgailuak egitea, edo langileak beharrik gabe ondorio hilgarriak dituen gaixotasun baten eraginpean ez jartzea, ez litzateke proba gaindiezina izan behar XXI. mendean. Kapitalismoa pandemia horren froga gaitzen ari ez bada, gaur egun ditugun ekoizpen-indarrak askatzeko gai ez delako da.

Sistemak gehiengoaren bizi-beharren aurrean erreakzionatu ezin izateak agerian uzten du bere interes bakarra onura pribatuak lortzea dela, ez giza beharrak asetzea, ez EBeko eta estatu kideetako politikariek hainbeste aipatzen duten elkartasuna. Horregatik ari gara azkenaldian Estatu batzuetatik besteetara osasun material kargamentuen lapurretaren ikuskizun tamalgarriari laguntzen, edo Estatu Batuek ezarritako zigor ekonomikoak pairatzen dituzten herrialdeei laguntza ukatzen, horren ondorioz pandemiaren ondorioetarako ahulagoak izanik herrialde hauek (Venezuela eta Iran, adibidez).

Aurreko asteetan, Pedro Sanchezen gobernuak, Europako Banku Zentrala eta munduko beste hainbat gobernu krisi hau salbatzeko euren estrategia zehazten joan dira. Herritarrek txunditzeko diskurtso ikaragarriak salbatuz, argi geratzen dena da enpresa handiak erreskatatuko dituztela. Estatu Batuetan, berriki onartutako erreskateak, forma leunean Estimuluaren Legea (Ley de Estímulo) deituak, *subprime* hipoteken krisiaren harira 2007-08an egin zutena galdara bihurtzen du.

Itxuraz hain desberdinak diren gobernuak hartzen saiatzen ari diren neurriak, hala nola estatubatuarra, britainiarra, alemaniarra edo espainiarra, hauek dira: lehenik eta behin, enpresak, pandemia garaian, kontratu mugagabeak dituzten eta produktiboki erabili ezin dituzten langileengandik (hau da, enpresarentzat gainbalioa eragin ezin dutenak) askatzea, aldi baterako kaleratzeen errekurtoa malgutuz lan-legeriak oraindik horretarako aukerarik ematen ez duen herrialdeetan. Bigarrenik, langile askoren kontratazio motak haiek baztertzeko aukera ematen duenez, inolako begiramendurik gabe, gizarte-laguntzako gutxieneko neurri batzuk ezartzen dira, hala nola argiaren edo uraren mozketak saihestea, etxegabetze hipotekarioak geldiaraztea, langabezia luzatzea eta abar.

Europar Batasunak proposatutako talka plana enpresei milaka milioi liberatzean datza, ekoizpen eta kontsumoaren geldialdiaren aurrean bizirik mantentzeko. Horregatik, orain arte ukiezinak izan diren defizitaren mugak aldi baterako gainditzeko baimena ematen die gobernuari. Baina inoiz ere ez da behartzen bizitzak salbaterara benetan bideratutako neurriak hartzea, hala nola sozialki ezinbesteko jarduera bat egiten ez dutenen isolamendua dekretatzea, edozein kontratu motaren pean kaleratzeak debekatzea, kaltetutako autonomoei diru-sarrerak ziurtatzea, pandemiari aurre egitera bideratutako baliabide publiko eta pribatu guztien kontrol zentralizatua ezartzea, eta jendaurrean lan egiten jarraitu behar dutenei ahalik eta babes-neurri handienak ematea.

Honen ordez, ikusten ari gara, Europan, aldi baterako kontratuak dituzten langile asko, autonomoak eta autonomo faltsuak, lanik gabe geratzen ari direla edo ERTEak (Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak) aplikatzen ari zaizkiela, lanpostu horiek berreskuratuko diren bermerik gabe. Are gehiago, jakin da ERTEak izendatu dituzten enpresa batzuk langileak lanpostuetara joaten jarraitzea derrigortzen ari direla. KOI (Kreditu Ofizialeko Institutua) funtsen bidezko laguntzak, autonomoei bankuen bidez bideratzen zaizkie, eta horiek, aldi berean, kostu handiko bizi-aseguruak sinatzera behartzen dituzte eskatzaileak, eta hori dagoeneko salatu da.

Espainiako gobernuak agindu dituen "baimen ordaindu berreskuragarriak", berez, gaurko ogia dira, eta biharko esplotazio handiagoa. Hori ahalbidetzen duten

sektoreetan, telelana behartzen ari dira, eta horrek, oro har, ordu gehiago kontsumitzen ditu. Eta gobernuek "funtsezko jardueratzat" jo dituzten horietan, langileek lanaldi nekagarriak egiten dituzte, eta kasu askotan kutsatzearen aurkako babesik gabe.

Laburbilduz, neurrien multzoa honela uler daiteke: estatuek motore ekonomikoa balentian jartzen dute isolamenduak behar duen bitartean, eta denbora horretan kontrol sozialari eusten diote gastu asistentzialarekin.

-Egoera honek prekarizatuta eta feminizatuta dauden zenbait lan-sektoreen garrantzia erakutsi du. Zer eragin izaten ari da, zehazki, emakume langile horien bizi- eta lan-baldintzetan? Zer ondorio izan dute gobernuak sektore horiei dagokienez hartutako neurriek?

Ezer baino lehen, beharrezkoa iruditzen zait argitzea emakume langileez ari garenean ez garela ari soilik enplegu bat dutenei buruz, beren familietako beste kide batzuen soldata diru-sarreraren arabera biziraupena duten etxeoandreei buruz -enplegua bilatzen egon ala ez- eta pentsiodunei buruz ere ari gara. Guztiek edo ia guztiek ordaintzen ez diren lanak egiten dituzte, etxean edo komunitatean.

Mundu kapitalista osoan, eta, bereziki, Estatu espainiarrean, emakumeen lan-merkatua, neurri handi batean, okerren ordaindutako jardueretara lerratuta dago, nahiz eta haien gizarte-onura zalantzarik gabekoa izan, hala nola, lehen mailako irakaskuntza, haurren eta mendeko pertsonen arreta, osasuna, elikagaien prozesamendua, ostalaritza, garbiketa, etxeko zerbitzua, etab.; era berean, lan harreman prekarioenetara bideratuak izan dira, lanaldi partzialetan, orduko edo denboraldi baterako kontratuetan edo kontraturik gabeko lanetan itzuli direnak, etxeko langile askoren kasua adibide. Oraindik zifra ofizialik ez dugun arren, baliteke kaleratzeak eta ERTEak emakumeen lan-indar horren zati handi bati egokitzea.

Etxeko langileen kasuan, harrigarria da Espainiako gobernuak "funtsezko jardueren" nominan sartu izana, eta hori egiten dutenak etxeetara joatera behartuak izatea horrek dakarren kutsadura-arriskuarekin, enplegatzaileek egin dezaketen lana -garbiketa edo zaintza lana izan- denean, are gehiago konfinamenduan badaude. Nire ustez, neurri horrekin, lehenik eta behin, langile horien diru-sarrera babestu nahi izan da – Estatua ez baitago prest "ordaindutako baimen berreskuratuak" emateko –, kasu askotan ez baitute kontraturik, ezta, horregatik, langabezia-eskubiderik ere, eta, horien artean, emakume etorkinen kopurua dago; eta, bigarrenik, zerbitzu horiek aldi baterako baztertzeko prest ez dauden "señoritoen" erosotasuna babestu nahi izan da. Sektore horretan, gainera, kontraturik ez duten langileak daude, beltzean lan egiten dute, eta asko etorkinak dira. Hemen jada zifrak eman ditzakegu. Etxeko Zerbitzu Aktiboko Elkartearen arabera, ehuneko berrogeia dira, Espainiako gobernuak bere neurri aringarrien azken paketearen sartu duen aldi baterako langabezia sorospenetik kanpo geratu direnak.

Bada, halaber, emakume langile askori bereziki eragiten ari zaien beste alderdi garrantzitsu bat: Administrazio Publikoak izaten ari diren utzikeria haurren, zaharren eta mendekotasuna duten beste pertsona batzuen gainean duten erantzukizunarekin, ikastetxe, haurtzaindegi, eguneko zentro eta abarren itxierarekin, alternatibarik eman gabe. Erantzukizun horren zati handiena emakumeen gain jausten ari da. "Feminista"

deituriko gobernuak hainbeste goraiatzuten dituen emakume berberak eta "zaintza-lan" berberak.

Enplegu bat zuten eta bertan behera utzi behar izan duten emakumeen kasua ematen ari da, seme-alaba txikiak, senide gaixoak edo adinekoak zaindu behar izateagatik, haien ordeztzeko beste pertsona batzuk kontratatzeko familia-baliabiderik edo baliabide ekonomikorik ez izateagatik. Eta horietatik guztietatik kaltetuenak guraso bakarrek familiak dira, gehienak emakume ezkongabeak edo dibortziatuak baitira; izan ere, kasu askotan ezin dute enplegua galtzea onartu, kaleratzeak, ERTEak edo – okerrago- pandemiak berak ez eragiteko zortea izan badute.

Enplegua galdu ez duten eta lanaldi osoan lan egiten duten beste langile batzuek lanaldi partzialera aldatu behar izan dute, enpresak aukera eman badie, enplegua eta etxekeko gaitz bategarri egiteko helburu berdinarekin. Familia-kargak izanik, "funtsezko jardueretan" sartuta dauden sektoreetan lanaldi osoak egiten jarraitzen dutenak – edo etxean telelana jardutera behartuta daudenak – eta familiaren laguntzarik ez dutenak estres-maila altuen eraginpean daude, haien osasun fisiko eta psikologikoari kalte eginez.

Orain gobernuan dauden "feministek" hainbestetan aipatzen duten "zaintza-krisi" erreala, alternatiba edo proposamen ausentzia totala da. Ezer ez dute esan aurreko legegintzaldietan Mendekotasun Legeari egin zitzaizkion murrizketa basatiak desagiteari buruz, bereziki larria Madrilgo Erkidegoan, horrek, gutxienez, diru-sarrera errazten baitzieten zaintzaileei. Familia kontziliazioaz hitz egiten dute, baina dagoeneko esan dute ez dituztela azken lan erreformak abolituko, eta, horrekin, Berdintasun Ministerioaren programa guztia ezerezean geratzen da. Hori da "benetako zaintza krisia": zainketen gaiari buruzko ekoizpen akademiko asko (artikuluak, tesiak, mintegiak eta abar), diskurtso asko eta ekintza zehatzik ez.

Esku hartzen ari ez den beste alderdi bat beren etxeetan ordenagailurik edo ADSL kontraturik ez duten langile-klaseko familiaena da, ezin baitituzte ordaindu; beraz, familia horietako haurrak eskolek eta institutuek antolatu dituzten eskolak eta bestelako *online* jarduerak galtzen ari dira. Suposatzen dugu ikastetxeek beraiek hartuko dituztela arazo hori arintzeko neurriak, baina Estatuak, oraingoz, badirudi beste aldera begiratu duela.

Eta zer esan baliabide gutxien dituzten emakumeek, etorkinak asko, jasaten duten prostituzioaren mundu ilunaz? Prostituzioan jarduten den klub eta pisuek gutxi jakiten dugu. Joan den hilean, Tenerifen klub bat itxi zuten, "jarduerarekin" jarraitzen zuelako, baina ateak itxita; jarduera horretan ez da nahikoa maskara edo eskularruak izatea ez kutsatzeko.

-EECren irakurketa batean honako hau esan zenuten: "Egoera honetan ez da zuzena koronabirusaren balizko krisiaz hitz egitea, baizik eta pandemiaren eraginez -kasu honetan- bizkortzen ari den krisi kapitalistaz". Zer aurreikuspen egin daiteke egoera horretatik eratorriko den krisiaz? Zein posiziotan gera daiteke langile klasea?

Egunerokotasuna normalizatzen denean, lan merkatua -berriro ere "librea"- arduratuko da langabezia krisiak eskatzen duen mailara eramateaz, eta altua izango denaren

ustea dugu. AEBetan jada aurreikusten ari dira indize batzuk -errealak, ez estatistiken fikzioak- benetan kezagarriak, epe ertainean ehuneko 40tik gorakoak; baina joera hori ez dirudi irauliko denik pandemiaren krisia gaindituztat jotzen denean. Enpresei egindako erreskateak zor pribatua publiko bihurtuko du, hau da, langile klaseak ordainduko du, aurrekoetan bezala. Zerbitzu publikoen murrizketekin jarraituko dute, aurreko krisialdian emandakoak gaindituko dituztenak. Azken finean, krisiaren ondorioz gainbalioaren jaitsieran dagoen perspektiba ikusita, kapitalaren erreakzioa lanaren esplotazioa areagotzea izango da.

Litekeena da asistentzia-neurriak luzatzea, halako gizarte-krisi bat aurreikusten baita, oinarrizko sorospena behar izatea eragingo duena. Estatu Batuetan dagoeneko ilara luzeak ikusten ari gara elikagai-bankuetara sartzeko, eta hemen, Espainian, parrokia batzuk kolapsatuta daude laguntza-eskaeren gorakadak eraginda, gizarte-zerbitzu publikoen hornidura eskasa dela eta. Are gehiago, ezin da baztertu laguntza-neurri horietan autonomoak eta berriz kontratatuak izan ez diren aldi baterako soldatapekoak sartu behar izatea, beharrezkoa bada bake sozialari eusteko. Baina etxegabetzeen moratoria amaituko da, eta, etxebizitzaren sektoreak baliabide gutxien dituzten familiek eskuragarri izan dezaten erregulaziorik ez duenez, gero eta langile gehiago ikusiko ditugu etxebizitza miserabletan bizi direnak, ibilgailuetan bizi direnak edo zuzenean kalean bizi direnak, Estatu Batuetan jada gertatzen den bezala. Alokairuak ordaintzeko Espainiako gobernuak eskaini dituen "mikrokredituek" familia horien endekapena areagotu baino ez dute egingo.

Enpleguari eutsiko dioten langileek kontsumoa murriztuko dute, zuhurtziagatik. Enpresaburuek erabaki dezakete ez inbertitzea zalantzazko mozkinen aurrean. Enpresa ahulenek edo beren negozioa murriztuta ikusi dutenek (garraio- eta turismo-enpresek, esaterako) porrot egin dezakete edo plantilla-doikuntzak egin ditzakete. Zorra hartzen mantentzen diren enpresek ikus dezakete kredituaren txorrota ixten zaiela mailegu-emaileak zuhur bihurtzen badira. Zorrak ordaindu ezin dituztenek finantza-sektorearen krisia eragin lezakete, 2008koa baino okerragoa. Oso erraza da egoera eskaintza eta eskariaren krisialdi aitortuan erortzea, geldiezina eta aurreikusi ezineko irismena duena.

Lan-harremanek denbora daramate II. Mundu Gerraren amaieratik ezagutzen ez genituen formetara itzulera bidean: kaleratze librea, kontratu ez-finkoak, zeharkako soldataren abolizioa – Gizarte-prestazio gisa – edo geroratua – pentsio gisa –. Badago jada "Austriako motxila" eta "oinarrizko errenta" izeneko arteko nahasketa moduko bat ezartzeko proiektua, gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatuko dituena. Baina, kontuz, neurri hori langile klaseak bere borrokekin lortu zituen eskubide sozialekin amaitzeko diseinatuta dago. Eztabaida hori izan behar dugu gauzak ondo argitzeko; izan ere, neurri horiekin – "Graziak" dira, eta ematen diren bezala ken daitezke –, Estatu Soziala iraganen izan genuenaren antzeko ongintza- eta karitate-sistema bihurtu nahi da. Gainera, zalantzarik gabe, "besteren lanetik bizi diren parasitoen" aurkako diskurtso erreakzionarioak sortuko dira, langile klasea gehiago zatitzeko asmoz. Kapitalak proiektu hau ezartzea lortzen badu eta lanaren prekarizazioan aurrera egiten badu, XIX. mendeko eta XX. mendeko lehen hamarkadetakoko gure arbasoen antzeko baldintzak dituzten langileak bihurtuko gara, baina telefono adimendunekin, horiek, sektore *uberizatu* berrietarako lan tresna izatetik haratago -*gig economy* deiturikoa- kontrol sozialerako tresna -oso potentea- izanik.

Ziurrenik, nabarmen murriztuko da enplegua administrazio publikoetan -bankuan ere gertatzen ari den bezala- roboten bidez eta teknologia digitalen eta Interneten bidez. Dagoeneko, orain arte aurrez aurre eman diren zerbitzuak telelana bihurtzeko proiektua dago, hala nola irakaskuntza edo osasun-arreta. Hala, soldatapeko langileak autonomo faltsu bihurtu dira, eta zortzi orduko lanaldiari agur esan diote; izan ere, sektore askotan jada agur esan diote ordaindu gabeko aparteko orduak egiteko betebeharragatik.

Eta litekeena da askatasun demokratikoetan ere murrizketa bat egotea -biltzeko, adierazpenerako-, greba-eskubidean eta sindikatzeko-eskubidean ere, horren beharrezkoak izanik hauek langile klasearentzat.

Beraz, hain zuzen ere, ez gaude koronabirusaren krisiaren aurrean, baizik eta ibilbide luzeko krisi kapitalista baten aurrean, egungo pandemiaren ondorioz bizkortzen ari dena eta ondorio oso lazarriak izan ditzakeena gure klasearentzat.

-Historiak erakutsi digu krisi uneak kapitalaren kontraesanak areagotzeko uneak direla, eta horietan mugimendu iraultzaileak inoiz baino gehiago sakondu behar duela bere lan politikoan. Zeintzuk dira klase-antolakuntzaren urgentziak? Eta zein emakume komunistenak?

Argi dago kapital-lanaren kontraesana areagotzen ari dela, baita munduko klase kapitalistaren bloke desberdinen arteko kontraesanak ere. Arazoa da klase-borroka, krisi kapitalistaren azken zikloa hasi zen mendeko 70eko hamarkadatik, kapitala irabazten ari dela, langile-klaseari armagabetuta harrapatu gaituelako, gure interesak defendatzen dituzten antolakunderik gabe. Sindikatu tradizionalak patronalaren departamendu bihurtu ziren, alderdi sozialista ohiak kredo liberalera pasatu ziren eta komunistak erreformismo sozialdemokratara, kapitalismoaren esparrua gainditzeko aspiraziorik ez dutenak. Horregatik izan da posible lan merkatuaren desarautze hori guztia martxan jartzea, eskubide sozialen murrizketa progresiboa eta soldata errearen jaitsiera azken lau hamarkadetan.

Irtenbide bakarra langile antolakunde bat eraikitzea da, independentea, egungo egoeraren azterketa batetik abiatzen dena, ikuspegi historikoarekin eta datu enpiriko, objektiboekin, modu eraginkor eta kolektiboan haren gainean jardun ahal izateko. Dagoeneko krisi honi erantzuna ematen ari zaizkio, grebak eta beste langile-mobilizazio batzuk eginez European eta beste herrialde batzuetan; baina antolakunde iraultzaile baten lana da lan egitea mobilizazio horiek isolatuta gera ez daitezen, arazo puntualak edo sektorialak konpontzera murriztuta, baizik eta batu eta kapitalismoaren esparrua gainditzera bideratutako estrategia batez hornitzea. Horretarako, ezker antikapitalista ezaugarritu duten sektarismoekin eta atomizazioarekin amaitu behar da; klase-kontzientzia sortu behar da, hau da, jaiotzearen lekua edozein izanda ere, soldata baten beharra duen klaseko kide garena, horregatik, interes komunak ditugula. Langile klaseak ez du aberirik, kapitalak ere ez duen bezala.

Antolakunde iraultzaile batek ikasteko, elkarri laguntzeko, komunikatzeko eta trukatzeko gune autonomoak irekitzeko lan egin behar du. Lan itzela bezain premiazkoa da, burgesiak zapaltzen gaituen esklabutzara makurtu nahi ez badugu; gure biziraupenaren oinarri diren natura baliabideez gabeturik ikusi nahi ez badugu gure burua. Lan zaila da, gaur egun burgesiak inoizko manipulazio eta kontrol

ideologiko eta sozial mekanismo indartsuenak dituelako. Horregatik da hain beharrezkoa gure komunikabideak eta prestakuntza sortzea eta mantentzea, eta goimailako irakaskuntzan sartu ahal izan garenok gure prestakuntza-maila txikiagoko klase kideengana jotzea, hizkuntza korapilatsu eta akademizistetatik ihes eginez, argi eta erraz.

Langile-antolakunde iraultzaile eta internazionalista hori sortu eta sendotu dadin, ezinbestekoa da haren kideen konpromiso erreala, militantea; funtsezkoa da gure lehenetsun gisa -bakoitzaren egoera pertsonalak ahalbidetzen duten neurrian- lan politikoa kokatzea, batasuna eta klase-kontzientzia eraikitzeko.

Gure arazoen konponbidea produkzioaren kontrola ekoizleen eskuetan jartzetik baino ez da pasatzen, modu planifikatu eta demokratikoan, hau da: sozialismoaren eraikuntzaren bidetik. Baina, langile klasearen egungo egoeran, antolakunde politiko eta sindikal indartsurik gabe, ezin dugu "neguko jauregia erasotzeko" deirik egin, baizik eta neurri zehatz eta gauzagarriak eskatzen hasi, hala nola, langabezia-aseguru bermatua, errenta-aitorpenean eraginik izan gabe; osasunaren eta irakaskuntzaren pribatizazioa itzultzea, lan-erreformak...; izan ere, momentuko errealitateari lotuagoak doazen aldarrikapen horien eta beste batzuen alde borrokatzeko antolatzen bagara, helburu handiagoetara bidean politikoki aurreratzen joateko aukera izango dugu.

Emakume komunistok konpromiso bikoitza dugu. Batetik, gure klasearen borrokan inplikatzeko, eta, bestetik, klasearen eta gure antolakundeen barruan lan egitea matxismoarekin amaitzeko eta sexuen arteko berdintasuna errealitate bat izan dadin lortzeko. Gure lana emakume proletarioen bizitza- eta lan-baldintzak eta prestakuntza politikoa hobetzerantz bideratu behar da, espazio propioak sortuz, baino inoiz ez klase-antolaketatik bereizita.

Matxismoa, arrazismoa, xenofobia, homofobia... kapitalismoak sustatzen dituen zapalkuntza moduak dira, langile klasea zatitzen dutelako eta faxismoaren elikagai direlako; gaur egun, bere buru harroa agertzen du faxismoak, berriz ere, eta ezker erreal armagabetu baten aurrean apelatzen gaitu.

Nahiz eta ezin dugun espero Estatuak, kapitalaren administrazio-kontseilua besterik ez denak, Marxek adierazi zuen bezala, langile gisa gure esplotazioak eta emakume gisa dugun zapalkuntzak eragindako arazoak konponduko dituenik, bere kontraesanei aurre egin behar diegu, exijituz -gure "ahalduntzeaz" hainbeste kezkatzen denez- goimailako hezkuntzarako sarbidea erraztuko digun tasa akademikoen eta tasen igoera bortitza ezabatzea, haurtzaindegi publikoz hornitzea, mendekotasuna dutenentzako eguneko zentroak, gure seme-alabei zabor-janaririk ematen ez zaien eskola-jantokiak, antisorgailuak eskuratzeko eta haurdunaldia eteteko zerbitzu doakoak, langile etorkinak beharrak ere erantzungo dituen osasun unibertsala, erregularizatuta egon ez arren, ongi hornitutako harrera-zentroak eta tratu txarrak jasan dituzten eta sexu-indarkeriaren eta prostituzioaren biktima diren emakumeentzako laguntzak...; izan ere, puskatzera gonbidatzen gaituzten "sabaia" ez dira kristalezkoak -burgesiarenak bezala-, zementuzkoak baizik.

Horrekin batera, gure lan politikoaren beste hanka izan behar da ibiltzen garen espazioetan jardutea (lantokia, auzoa, ikastetxea, elkarrekin...) eta gure klaseko emakume eta gizonekin elkarlanerako ehun bat sortzea, elkarri laguntzeko.

Emakumeen emantzipazioaren aldeko borrokan, komunistok lehen planoan jarri behar dugu klase kontraesana, gure klasearekin antolatu behar gara, eta agerian utzi behar dugu feminismo erreformistaren neurriak hein handi batean euren klaseko emakumeentzat bakarrik direla, ez guretzat. Era berean, prestakuntzarako gune propio eta independenteak ireki behar ditugu, emakumeen zapalkuntzari buruzko ikasketa marxisten eta emakume langileen emantzipazioaren aldeko borrokaren tradizio emankorra erreskatatzeko. Horrek, azken batean, gure historia berreskuratzea esan nahi du, eta horretatik abiatuta teoria eta praktika eraikitzen jarraitzea. Horregatik, martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izan dadin borrokatu behar dugu, 1910ean Emakume Sozialisten Nazioarteko II. Konferentzian sortu zen oroipena.